


Pterocarya x rehderiana: TXINATAR INTXAURRONDOA

Pterocarya x rehderiana: identifikazioa

Zuhaitz hostoerorkorra da eta 30 m-ra irits daiteke. Hosto konposatuak ditu, 20-45 cm-koak. Bere hostoxkak 12x3 cm-koak dira. Loreak gerbetan biltzen dira, emeak ata arrak bereiziak. Bere fruitua intxaur hegaldun bat da eta neguaren ondoren erortzen da.

Apiriletik maiatzera bitartean loratzen da. Ugalketa haziaren bidez egiten omen da. Azkar hazten da. Eremu eguzkitsuak nahiago ditu. Lehorteak ez ditu ongi jasaten, izozteak, berriz, bai. Bere hostoek arrainei eta beste ornodunei eragiten dieten

konposatu
toxikoak
dituzte.



Pterocarya x rehderiana: jatorria eta kokapena

Frantzia 1879. urtean sortutako hibridoa da. Ipar Amerikan, Europan, Ekialde Hurbilean eta Txinan kokatzen da. EAEn Bizkaian (Ibaizabal ibaiaren arroan ugaria da) eta neurri txikiagoan Debako arroan (Gipuzkoan) aurkitzen da. Ziurrenik hedatzen ari da.

Pterocarya x rehderiana: arriskugarritasuna, eragina eta egoera

Hibrido hau asko hedatu da Ibaizabalgo arroan bere hazkunde azkarrari eta ugalketa sexual arrakastatsuari esker. Zenbait iturriren ustez, ***mehatxu larria da ibar-barreneko urertzeko ekosistementzat***. Masa monoespezifikoak eratzen ditu eta bere hostoak, erortzen direnean, toxikoak dira arrainentzat eta beste ornodun batzuentzat.

Pterocarya x rehderiana: kontrol eta kudeaketa metodoak

Ez da erreferentziarik aurkitu espezie hau desagerrarazteko metodoei buruz. Hemen proposatutako teknikak egiaztatu beharko dira:

- Urteroko plantulen erauzketa eskuz edo tresna arin baten laguntzaz
- Zuhaitz txiki edo ertainen mozketa
- Zuhaitz handiagoen mozketa edo eraztuntzea, ahal bada, zuhaitzek haziak askatu baino lehen egin behar da

Ondoko urteetan beharrezkoa da ernaberritzeak kontrolatzea hazi-bankua agortu arte. Lehen tratamenduaren ondoren, bertako espezieak berlandatu behar dira kaltetutako urertzetan.

Haziak eta hostoak balorizazio energetikoaz arduratzen den zentro batera eraman behar dira. Gainerako hondarrak materialki edo energetikoki balorizatu daitezke instalazio publiko edo pribatuetan, baina kasu horretan hazirik ez dutela ziurtatu behar da.